

DIRULAGUNTZA-PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2024

OGASUN ETA FINANTZAK

1. EBB batek abalatutako maileguen interes-tasaren eta abal-komisioaren subsidiazioa ...2



1.- Diru-laguntzen programaren izenburua

EBB batek abalatutako maileguen interes-tasaren eta abal-komisioaren subsidiazioa

2.- Arau erregulatzailea

50/2020 Dekretua eta 106/2021 Dekretua, 2020rako eta 2021erako ETEak, banako enpresaburuak eta profesional autonomoak finantzatzeko laguntzeko programak antolatzen dituen, Covid-19aren eragin ekonomikoari erantzuteko helburuarekin; eta 83/2022 Dekretua, 2022ko uztailaren 5ekoa, energiaren eta lehengaien prezioen igoerari aurre egiteko.

3.- Arau erregulatzailea, deialdia eta emakida-ebazpena argitaratzea (EHAArako hiperesteka)

1. Enpresa txiki eta ertainentzako, banako enpresaburuentzako eta profesional autonomoentzako finantza-laguntza 2020rako, COVID19aren inpaktu ekonomikoari erantzuteko:

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2020001792>

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2020001796>

Enpresa txiki eta ertainentzako, banako enpresaburuentzako eta profesional autonomoentzako finantza-laguntza 2021erako, COVID19aren inpaktu ekonomikoari erantzuteko:

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2021001518>

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/bopv2/datos/2021/03/2101531a.shtml>

2022ko enpresa txiki eta ertainei, banako enpresaburuei eta profesional autonomoei finantza-laguntza ematea, energiaren eta lehengaien prezioen igoerak eragindako inpaktu ekonomikoari erantzuteko:

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2022003292>

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2022003408>

4.- Diru-laguntzen programaren deskribapen laburra eta helburuak

Dirulaguntzen programa hau enpresa txiki eta ertainak, banako enpresaburuak eta profesional autonomoak finantzatzeko, interes-tasaren subsidiazioaren eta EBB batek abalatutako maileguen abal-komisioaren bidez, Covid-19aren eragin ekonomikoari erantzuteko eta energiaren eta lehengaien prezioen igoerari erantzuteko.

Helburua: Euskal enpresen finantzaketa-kostua murriztea 50/2020 Dekretuaren eta 106/2021 Dekretuaren esparruan (dekretu hauen bidez, enpresa txiki eta ertainak, banakako enpresaburuak eta profesional autonomoak finantzatzeko laguntzeko programak antolatzen dira 2020rako eta 2021erako, Covid-19aren eragin ekonomikoari erantzuteko helburuarekin), baita 2022ko uztailaren 5eko 83/2022 Dekretuaren esparruan ere, energiaren eta lehengaien prezioen igoerari aurre egiteko.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu-betearazpena eta baliagarritasuna eta inpaktu soziala (Era berean, dirulaguntzen programan jasotako neurrien zerrenda jasoko da, hala badagokio, berdintasuna



sustatzeko eta emakumeen eta gizonen arteko eta talde gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere.)

2020ko eta 2021eko dirulaguntzen programen esparruan, guztira 753,9 milioi €-ko 8.614 mailegu formalizatu ziren, eta 7.863 enpresa finantzatu ziren.

Era berean, 2022ko dirulaguntzen programari esker, 2020an eta 2021ean formalizatutako 546 mailegu berri ahal izan ziren, guztira 59 milioi €, mailegu-zorroaren % 8.

2020an hasi eta 2021ean eta 2022an jarraipena izan duen programaren emaitzek helburuak zabaldu dituzte, hala nola eragiketen epea luzatzeak eta/edo eragiketarik ez izateak finantzaketa baldintza abantailatsuetan eskuratzea ahalbidetu du, enpresentzat likidezia-arazoak sumatzen ziren uneetan, pandemiaren murrizketek, energiaren prezioen igoerak eta lehengaien igoerak eragindako salmenten jaitsieragatik.

2024ko abenduaren 31n indarrean dagoen arriskua 325.3 milioi €-koa da. 428.6 milioi € amortizatu dira eta 1.390 eragiketa baliogabetu dira.

Emandako finantzaketari dagokionez, EAEko Administrazio Orokorrak 2024an 19.085.731 €-ko dirulaguntzak eman zizkien enpresei; horietatik 17.882.435 € enpresek ordaindutako interes-likidazioengatik emandako dirulaguntzei dagozkie, eta 1.203.296 € Elkargi EBBri ordaindutako abalkomisioen dirulaguntzei.

DIRULAGUNTZAK	2020	2021	2022	2023	2024	Totala
Elkargi: Abal	3.760.358 €	3.218.815 €	1.853.755 €	1.534.482 €	1.203.296 €	11.570.706 €
Komisioa						
Dirulaguntzak, interesak	411.759 €	4.719.874 €	2.911.543 €	16.389.962 €	17.882.435 €	42.315.574 €
Totala	4.172.117 €	7.938.690 €	4.765.298 €	17.924.444 €	19.085.731 €	53.886.280 €

Formalizatutako maileguengatik enpresei Elkargiren bidez emandako birfidantzamenduari dagokionez, 2020an eta 2021ean 7.898.875 € izan dira. EAEko Administrazio Orokorraren nobazioek ez diete eragin Elkargi EBBrekin birfinkatzeko ehunekoei. Zenbateko hori hasierako aurreikuspenen azpitik dago. Izan ere, Elkargirekin formalizatutako Birfidantzamendu Hitzarmenetan eta dekretuetan jasotako eragiketen estaldura (% 75erainoko birfidantzamendua aurreikusten zuten, CERSAren birfidantzamendua osatuz), azkenean sozietate horrek hartu du bere gain ia gehieneko fidantzamendu-muga, Estatuko programen arabera, elkarren bermerako sozietateekin. Finantzaketa-eskari gehiena 2020an estali zen.

Hurrengo ekitaldirako ordainketa-aurreikuspenen arabera, gainditu egingo da Gobernu Kontseiluak baimendutako zenbatekoa, eta, beraz, gastua handitzeko beste baimen bat izapidetuko da.

2024an Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrak ez du kobraezinik ordaindu. Programaren hasieratik, Elkargi EBBk 330 huts jakinarazi ditu 2024ko abenduaren 31ra arte, 15.1 milioi €-ko zenbatekorako.



6.- Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren adierazleen emaitza

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emitza</u>
Abal-komisioaren dirulaguntza likidatzeko egindako berrikuspenak (Elkargi)	2	2
Interesen dirulaguntza likidatzeko egindako berrikuspenak (finantza-erakundeak)	126	126